

FAMILIA-INGURUKO ZAINKETEI LAGUNTZEKO PRESTAZIOA (FIZPE)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Laguntza ekonomikoak zuretzat edo zure zaintzaileentzat

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.

Zenbatekoa

Aldakorra, baldintza pertsonalen arabera.
12 ordainsari urtean.

Baldintzak

Mendekotasuna egiaztatzea.
Erroldatzea, elkarbizitza, legezko egoitza.
Etxebizitza egokia.
Zaintzailearen **konpromisoa**.

Zertan datza?

Familia-inguruko zainketei laguntzeko prestazioa (FIZPE) mendekotasuna duen pertsona bere etxean eta senide baten aldetik artatzeko gastuak ordaintzen laguntzeko laguntza ekonomikoa da ([3.2.1 fitxa](#)).

Norentzat?

Mendekotasuna duten pertsonak (**I., II. edo III. graduak**).

Zenbatekoa da?

Urtean 12 ordainsari ordaintzen dira. Foru-aldundiek urtero finkatzen dute gehieneko zenbatekoa, eta pertsona bakoitzak jasotzen duen zenbatekoa kalkulatzeko, hainbat faktore hartzen dira kontuan: mendekotasun-maila, gaitasun ekonomikoa, beste zerbitzu batzuk erabiltzea edo antzeko laguntzak kobratzea.

Bateragarria al da beste laguntza batzuekin?

FIZPE **ez da bateragarria** SAAD Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren beste prestazio ekonomiko batzuekin (Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa izan ezik), Baina **bateragarria da** mendekotasunari arreta emateko zerbitzu guztiekin, egoitza- edo ostatu-zentroetako egonaldi iraunkorrekin izan ezik. Aldi baterako egonaldia egoitzan eginez gero, laguntza eten egingo da aldi baterako, egonaldia amaitu arte.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Mendekotasuna duen pertsonaren aldetik:

Mendekotasuna onartua izatea (I., II. edo III. gradua)

Prestazioa zein foru-aldundi historikori eskatu zaion, lurralde historiko horretako erroldatuta egotea.

Espainiako nazionalitatea edo Espainiako Estatuan legezko egoitza izatea (adingabeak izan ezik).

Bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintza egokiak dituen etxebizitza bat izatea.

Eskumena duten gizarte-zerbitzuei etxebizitza eskuratzen laguntzea, baldintzak eta inguruabarrak betetzen direla egiaztatzeko.

Zaintzaile nagusiaren aldetik:

Adinez nagusia izatea.

Familiakoa izatea.

Mendekotasuna duen pertsonarekin bizitzea eta harekin erroldatuta egotea.

Legezko egoitza izatea.

Ez izatea adin aurreraturik artatutako pertsonak II. edo III. graduako mendekotasuna duenean, ez eta mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsona gisa baloratuta egotea ere (=>%65).

Arreta egokia eskaintzeko gaitasun fisiko eta psikiko nahikoa izatea.

Zaintza-lanak egiteko denbora nahikoa izatea.

Arreta Pertsonalizatuko Planean agertzea.

Gizarte-zerbitzuek zehazten dituzten zainketei buruzko prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko prest egotea eta adierazten diren gomendioak betetzea.

Non eska dezaket prestazioa?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Familia-inguruko zainketei laguntzeko prestazioa Araban](#)
- [Familia-inguruko zainketei laguntzeko prestazioa Bizkaian](#)
- [Familia-inguruko zainketei laguntzeko prestazioa Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)